

**Nafarroako Foru Komunitateko herritarren segurtasunerako kontseilua arautzen duen
otsailaren 28ko 13/2011 Foru Dekretua aldatzeko Foru Dekreturako proiektua prestatu aurreko
kotsulta publikoa**

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariaren uztailaren 4ko 104/2017 Foru Aginduaren bidez hasi zen prozedura ondokoak prestatzeko: Nafarroako Segurtasun Publikoari buruzko ekainaren 20ko 8/2006 Foru Legea aldatzeko aurreproiektua eta Nafarroako Foru Komunitateko herritarren segurtasunerako kontseilua arautzen duen otsailaren 28ko 13/2011 Foru Dekretua aldatzeko proiektua.

Araudi tramitazio horren lehen fase gisa, alde aurreko kontsultarako dokumentua prestatu zen. Bertan adierazi ziren, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearekin bat, konpondu nahi ziren arazoak, aurreproiektua onesteko premia eta aukera, arauaren xedeak eta balizko ordezeko aukerak.

Aldez aurreko kontsultak herritarrek parte-hartzeko prozesu bat izan du, Gobernu Irekiaren Atarian argitaratu baita 2017ko uztailaren 6tik abuztuaren 23ra bitarteko aldian, herritarren ekarpenak, iradokizunak eta iritziak jasotzeko asmoz. Ez da ekarpenik jaso kontsultan ezarritako modu eta bidean eta, beraz, araua tramitatzeko prozeduraren fase hau itxiko da.

Iruñean, 2017ko abuztuaren 25ean.